



77. HONDARTZAKO “PACO URQUIA” FUTBOL TXAPELKETA. COVID PROTOKOLOA.

Txapelketaren parte diren jokalariai, epaile, zaletu eta antolatzaileen segurtasuna bermatze aldera, egunean diren neurriak betetzeaz gain, neurri hauek bete beharko dira:

PARTIDU AURRETIK

- Jende pilaketak ekidite aldera, **talde bakoitzetik 5-6 pertsona gerturatuko dira lokal kanpora**: delegatua eta porteriak eramateko arduradunak. Taldeko beste kideak zuzenean dagokien zelaira joango dira.
- **Partida baino 30 minutu lehenago** bertan egon behar da. Puntualtasuna garrantzitsua da. Epaileak 15 minutu lehenago ailegatuko dira.
- **Antolakuntzak akta guztiak beteta eramango ditu** taldeak emandako informazioarekin (jokalaria zerrenda eta dortsalak). **Delegatuaren lana errebisatu eta sinatzea izango da.**
- **Aktak malekoiko aterpean egongo dira**, lokalaren kanpokaldean.
- Jokalariek ezingo dute lokalera sartu. Epaileak motxilak uzteko bakarrik.
- **Jardunaldian erabiliko diren porteri guztiak malekoi kanpoan egongo dira**, eskola jardunaldietan egiten den moduan.

PARTIDA ONDOREN

- **Porteriak uzteko talde ezberdinak txandaka sartuko dira.**
- Lokal barruan beharrezkoa den denbora bakarrik egon.
- Epaileek beraien aktak kanpoan beteko dituzte, malekoiko aterpean egongo diren mahaietan.

MASKARAREN ERABILERA

- **Aktak betetzeko garaian eta porteriak uzteko momentuan maskarak erabiltzea derrigorrezkoa izango da.**

POSITIBOAK

- Jardunaldi bat amaitu eta **48 orduko tartean jokalaria batek positibo emango balu**, eta osasun agintariak beharrezkotzat joko balute, antolakuntzari abixatu beharko zaio. Antolauntzak aurkako taldearen delegatuari positiboaren berri emango dio eta, osasun agintariak eskatuko balute, aktan azaltzen diren jokalarien zerrenda emango luke.